

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### **126/2018 Foru Agindua, martxoaren 13koa, onesten duena 2018-2019 denboraldian Arabako Lurralde Historikoko ehiza esparruetan orkatza (*Capreolus capreolus*) ehizatzeke araudi berezia**

Uztailaren 18ko 246/2017 Foru Aginduak, 2017/2018 denboraldian Arabako Lurralde Historikoan zein alditan egin daitekeen ehizan eta debekualdi bereziak noiz izango diren finkatzen dituenak, 2. C.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, bidezkoa da artikuluko horrek orkatza harrapatzeke aipatzen duen araudi berezia ezartzea.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

2018/2019 denboraldian Arabako Lurralde Historikoan orkatze espeziea ehizatzeke araudia eta orkatze ar eta emeen ehiza kupoak ezartzea. Horretarako, honako atal hauek zehazten dira:

#### **Lehenengoa: baimendutako ehiza esparruak**

Oro har, Arabako Lurralde Historikoko ehiza larriko esparru guztietan ehizatu daiteke orkatza. Hala ere, harrapaketa kupoak eman ahal izango zaizkie ehiza xeheko esparruei, baldin eta espezie horrek eragindako eta behar bezala egiaztatutako nekazaritza edo baso kalteak edo zirkulazio istripuen ondoriozko kalteak egon badira haietan, bai eta osasun arrazoiengatik edo orkatze populazioa kudeatzeko ere.

#### **Bigarrena: ehizakiak**

Edozein adinetako orkatze arrak zein emeak ehizatuko dira.

#### **Hirugarrena: modalitateak**

Baimendutako ehiza modalitateak zelata eta uxaldia izango dira, bai orkatze arrak bai emeak harrapatzeke.

#### **Laugarrena: baimendutakoaldiak**

- a. Arren udaberriko zelataldiak: 2018ko apirila, maiatza eta ekaina.
- b. Ar eta emeen udazkeneko zelataldiak: 2018ko urria.
- c. Emeen neguko zelataldiak: 2019ko urtarrila eta otsaila.
- d. Ar eta emeen udazkeneko uxaldiak: 2018ko urria.
- e. Emeen neguko uxaldiak: 2019ko urtarrila eta otsaila.

#### **Bosgarrena: munizioa**

Oro har, baimendutako munizio bakarra bala izango da.

Badago arkuz ehizatzeke aukera, zelata eran. Horrela egitekotan, arkudun ehiztariak, ehizatzeke behar diren nahitaezko agiriak izateaz gainera, ehiza modalitate horretan aritzeko gaitzen duen titulu egokia eduki beharko dute, urriaren 27ko 155/1999 Foru Aginduan xedatutakoarekin bat etorritik.

**Seigarrena: Orkatza edozein modalitatetan ehizatze baimenen banaketa**

a. Orkatz ehiza arautzen duen foru agindua argitaratu baino lehen, behin emeak ehizatze aurreko denboraldiko neguko ehizaldia bukatuta, Nekazaritza Sailak Araban dauden ehiza esparruen elkarteei, elkarte horien kide ez diren esparru eskatzaileei eta Kuartangoko Udalari jakinaraziko die zein ar eta eme kopuru dagokien 2018-2019 denboraldirako, eta nahitaezkoa izango da aurreko denboraldian esparru bakoitzean egindako harrapaketak jakinaraztea, kupo esleitu ahal izateko.

b. Elkarreetako kide ez diren ehiza esparruek eta Kuartangoko Ehiza Esparru Sozialak emandako kupoei dagozkien zigilu zenbakidunak jasoko dituzte, banan-banan, Arabako Foru Aldundiaren bulegoetan.

c. Ehiza esparruen elkarteek euren esparruei esleitutako zigilu guztiak jasoko dituzte esparru horien artean banatzeko. Era berean, Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuari jakinaraziko diote esleitutako kupoaren arabera esparru bakoitzari eman zaizkion zigilu zenbakidunen zerrenda.

d. Ehiza esparruen elkarteek, elkarte horietako kide ez diren esparruek eta Kuartangoko Ehiza Esparru Sozialak ehiztariei zigiluak banatzeko ardura izango dute, bai eta Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuari emaitzak jakinarazteko ere. Ildo horretatik, ehiza denboraldi bakoitza bukatu ondorengo 10 egunetan gehienez ere, erabilitako zigiluen gordekinak bidaliko dituzte, horien fitxa biometrikoekin batera, ezarritako ereduari jarraituta. Baimenak erabili dituzten ehiztarien sinadura irakurgarria izan behar dute fitxa biometriko horiek.

Era berean, 2018-2019 denboraldiko orkatz ehizaren laburpen fitxa eta erabili gabeko zigiluak bidali beharko dituzte denboraldia amaitu eta gehienez 10 eguneko epean, horretarako ezarritako ereduaz baliatuz.

**Zazpigarrena: zelatan ehizatze araudi berezi osagarria**

a. Espeziea ehizatze baimendutako aldietako ostiral, larunbat, igande eta jaiegunak izango dira ehizan jarduteko egun baliodunak.

Oro har, ehiza ordutegia egunsentitik hasi eta iluntzera arte izango da, erreferentzia bezala Institutu Geografiko Nazionalak argitaratutako egunsenti eta iluntze almanaka ofiziala hartuta <http://www.fomento.gob.es/salidapuestasol/2018/Vitoria-2018.txt> y <http://www.fomento.gob.es/salidapuestasol/2019/Vitoria-2019.txt>.

Arabako parke naturaletako erabilera publikoak bateratze aldera, parke horietako ehiza lurretan zelatan ehizatze ordutegia egunsentitik 11:00etara arte eta 18:00etatik iluntzera arte izango da udaberriko zelataldietan; eta egunsentitik 11:00etara arte eta 17:00etatik iluntzera arte, udazkeneko eta neguko zelataldietan.

b. Martxoaren 17ko 2/2011 Legearen, ehizarenaren, 39.12 artikulua aplikatuz, ezin izango da zelatarik egin uxaldia egiten ari diren lekutik 500 metro baino gutxiagora.

c. Baimenen titularrak. Kasuan kasuko ehiza baimenak kuporako eskubidea duen esparru bakoitzak esleituko ditu, honako hauek indarrean dituzten ehiztarien artean: Araban ehizan aritzeko behar diren agiri guztiak eta, horiez gainera, ehiza esparruko bazkide txartela, zelatan ehizatze baimena duela zehazten duena, edo aprobetxamenduaren esleipena duen erakunde edo pertsonaren baimen pertsonala eta eskualdaezina, zeinean ehiztariaren identifikazio datuak eta ehizan egiteko baimendutako egunak jaso behar diren. Agiri horiek eta kasuan kasuko zigilu zenbakiduna ehizaldi osoan aldean eraman behar dira.

Kuartangoko Ehiza Esparru Sozialean, Kuartangoko Udalak esleituko ditu orkatzak zelatan ehizatze baimenak.

d. Gomendagarria da ehiztariarekin uneoro ehiza esparruak izendatutako pertsona bat, gidariaren eginkizunak beteko dituena, joatea. Alde horretatik, pertsonen segurtasuna oro har bermatu ahal izateko, gomendatzen da kolore deigarriko txalekoak erabiltzea zelatan aritzean, bai ehiztariak bai laguntzaileak, halakorik badago.

e. Zelatan egiten den bitartean orkatzen bat zauritzen bada, ezin izango zaio beste bati tiro egin. Gainera, ehiztaria behartuta egongo da zauritua bilatu eta hiltzera. Zelatan diharduen pertsona bakoitzeko txakur bat erabil daiteke, baina arrastoei jarraitzeko eta zauritutako animaliak ehizatzeke baino ez. Zauritutako orkatza aurkitzen ez bada ere, dagoen kupotik deskontatuko da.

**Zortzigarrena: uxaldi modalitatean ehizatzeke araudi berezi osagarria**

a. Espeziea ehizatzeke baimendutako aldiko larunbat, igande eta jaiegunak izango dira ehi-zan jarduteke egun baliodunak. 08:30etik 16:30era jardun ahal izango da ehizan.

b. Uxaldiak mistoak izan daitezke (oreinetako, basurdetako edo horietako bietako baimendutako ehizaldiekin batera egiten badira), edo berariaz orkatzak ehizatzekeak (harrapatzeke espezie bakarra orkatza bada).

c. Uxaldi bidezko ehiza aukeratuz gero, uxaldiak egin baino gutxienez hilabete lehenago jakinarazi beharko dira, bestelako erabilerekin bateratu ahal izateko neurriak ezartzeko, beharrezkoa izanez gero. Jakinarazpen horretan orkatzak ere harrapatuko diren basurde eta/edo orein uxaldi baimenduen datak edo berariazko uxaldien datak adierazi beharko dira. Holako uxaldiak egiten direnean, haien jakinarazpenarekin batera, koordinatzaile titularren eta ordezkoen izenak eta NAN zenbakiak adierazi beharko dira. Horien eginkizuna oro har uxaldia antolatzea izango da: arautuz autoak nola sartuko diren, dagokion informazio seinaleak nola jarriko diren, nola banatuko diren uxaldian parte hartuko duten pertsonak, non kokatuko diren ehiza postuak, noiz hasi eta amaituko den uxaldia eta nola ezarri behar diren zigiluak. Araban dauden elkarteetako bateko kide diren ehiza esparruek haren bitartez izapidetuko dituzte beren jakinarazpenak. Elkarteren bateko kide ez diren ehiza esparruek jakinarazpenak Mendi Zerbitzura igorriko dituzte.

d. Uxaldia ehiza modalitate selektiboegia ez denez gero, baimendutako ehizaki kopurua baino baten bat gehiago edo baimendutakoa ez den sexukoren bat hiltzen bada ustekabeen, berehalakoan jakinarazi beharko zaio zaintzari. Animalia hori edo horiek hurrengo ehiza denboraldian esparruari esleituko zaion orkatz kupotik kenduko dira.

e. Orkatzen uxaldi espezifikokoak: orkatz eme zein arren edo emeen uxaldi espezifikokoak ezin izango dira egin ehiza esparruan orein edo basurde uxaldiak baimenduta dauden egunetan. Uxaldi hauetarako ehiza taldeak, gutxienez, 5 ehiztarik eta, gehienez, 20 ehiztarik osatuko dituzte. Txakurrik ez erabiltzea (uxaldi isilak) edo txakur txikiak erabiltzea gomendatzen da. Uxaldiak 100 hektarea baino gutxiagoko eremuetan egingo dira. Eremu horretan, kupoa bete arte, egunean nahi beste uxaldi egin ahal izango dira.

f. Berariazko uxaldietarako, nahitaez bete beharko da uxaldiari buruzko akta edo agiri bat, ehizaldian izandako gorabeherak jasotzen dituena. Agiri hori Mendi Zerbitzura bidali beharko du ehiztariak berak, edo dagokion elkartearen bitartez, uxaldiaren hurrengo hamar egunen barruan, nahiz eta uxaldia egin ez. Uxaldiaren akta edo agiriak, egun horretan uxaldiko koordinatzaile lanetan jardun duen pertsonaren edo pertsonen sinadura irakurgarria izan beharko du, haren edo haien izena, abizenak eta NANA argi adierazita. Aktaren eremu guztiak bete beharko dira eta balio gabeak izango dira akta irakurtezinak, bete gabeak edo sinadura irakurgarria ez dutenak.

Agiri horiek ehiza esparruen elkarteetan aurkeztuko dira, horietako kide diren esparruen kasuan; gainerako ehiza esparruen kasuan, berriz, Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuan. Agiriak aurkezteko gehienez 10 eguneko epea dago, ehizaldia egin denetik aurrera. Esleitutako orkatz eme eta arren kupoa agortu ez bada, agiri hori aurkeztea nahitaezko baldintza izango da uxaldi gehiago egin ahal izateko.

g. Eguraldiaren ondorioz uxaldiak bertan behera uztea: halakoetan, uxaldia koordinatzen duten pertsonak berehalakoan jakinarazi beharko diote zirkunstantzia hori ehiza esparruko zaintzari. Gainera, uxaldia bertan behera utzi den egunaren hurrengo egun baliodunean, esparruko ehiza aprobetxamenduaren esleipena duen pertsona edo erakundeak edo esparruaren jabe den elkarteak Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuari horren berri eman beharko dio, eta uxaldia egiteko beste egun bat proposatu, hura oraindik ere egin nahi izanez gero.

h. Horren ondorioetarako, uxaldia hasitzat joko da uxatzaileak lurra arakatzen hasten diren garaian. Beraz, uxaldia ezin izango da bertan behera utzitzat jo une horretatik aurrera, edozein delarik ere uxaldia hasi denetik koordinatzaileek mendiko ehiza postuak kentzea erabakitzen duten arte igarotako denbora tartea.

**Bederatzigarrena: zigilua jartzea**

Ehizatutako orkatz guztiei (ar zein eme) zigilua jarri beharko zaie, berdin du zein ehiza modalitatetan harrapatu diren.

Zigilua adajejan jarriko zaio animalari, adarrak hazita badauzka; eta atzeko hanketako batean, emea bada edo hazitako adarrak ez badu, plastikozko horzdun banda baten bidez sendo lotuta egoteko moduan, eta gidatzat balioko du haren jatorria ziurtatzeko eta garraioa baimenduta dagoela egiaztatzeko.

Zelatako ehizan, animalia harrapatzen den unean ipiniko zaio zigilua, eta uxaldietan biltze puntuan jarriko da zigilua, beti esparrua utzi baino lehen, apurtu edo hondatu gabe ezin kentzeko moduan. Ez bazaio zigilurik jartzen harrapatutako animalari, zehapena ezarriko da apirilaren 13ko 2/2011 Legeak, ehizarenak, xedatutakoarekin bat etorritz. Zigilua galduz gero, eta behar bezala justifikatutako arrazoirik ez badago, ez da egongo eskubiderik beste bat lortzeko.

Animaliak, zigilatutakoan, neurtu eta pisatu egingo dira, eta horretarako fitxa biometrikoa beteko da, ezarritako ereduaren arabera. Fitxa hori behar bezala beteta aurkeztu beharko da, dagokion zigilu zatiarekin batera, ehizaldia egin eta gehienez ere 10 eguneko epean, ehiza esparruen elkarteetan, ehiza esparrua horietako bateko partaidea bada, edo Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuan, gainerako ehiza esparruen kasuan.

Zigilu bakoitzak ehiza esparru jakin bat izango du esleiturik, eta ezin izango da beste esparru batean erabili.

**Hamargarrena: segurtasuna**

a. Ehiza modalitate guztietan esparruan ibilgailuz egiten diren joan-etorrietan, arma une orotan hutsik eta kargatu gabe eraman beharko da, hau da, kartutxorik ez daukala ez biltegian, ez ganberan. Gainera, zorroan sartuta eraman beharko da arma.

b. Uxaldi misto zein berariazkoetan, basurdeak uxaldian ehizatzeko finkatuta dauden segurtasun baldintza guztiak bete beharko dira, bereziki, txalekoak erabiltzeari eta uxaldia egingo den zona seinaleztatzeari dagozkienak.

c. Era berean, zelaldietan segurtasun neurriak ahalik eta zorrotzenak izango dira, istripuak saihesteko.

**Hamaikagarrena: ez betetzea eta zehapenak**

Foru agindu honetan ezarritako arauetakoren bat betetzen ez bada, apirilaren 13ko 2/2011 Legeak, ehizarenak, eta ekainaren 14ko 8/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ehizarenak, xedatutakoaren arabera ezarriko dira zehapenak.

**Hamabigarrena: aldaketak**

Nekazaritza Sailak foru agindu honen edukiaren edozein alderdi aldatu ahal izango du, inguruabar hauetakoren bat dela medio: eguraldia, biologia edo natura ondarea zaintzea, edo interes orokorrak edo ingurumenarenak babestea.

Lehenengo xedapen gehigarria

Foru agindu hau onartzen den egunetik aurrera egongo da indarrean, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 13a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*  
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

*Nekazaritza zuzendaria*  
MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

**I. ERANSKINA****MODALITATE, EGUN, ORDUTARTE, SEXU ETA EHIZATZEKO  
BAIMENDUTAKO ALDIEN LABURPENEA**

MODALITATEA	EGUNAK	ORDU TARTEAK	SEXUA	2018												2019		
				IV	V	VI	VII	VIII	IX	X	XI	XII	I	II	III			
Zelatan	Or., lr., ig. eta jaiegunak	(*)	Arrak	■	■	■												
			Arrak eta emeak							■								
			Emeak											■	■	■		
Uxaldia	Lr., ig. eta jaiegunak	08:30-16:30	Arrak eta emeak								■							
			Emeak												■	■	■	

(\*) Oro har, ehiza ordutegia egunsentitik hasi eta iluntzera arte izango da, erreferentzia bezala Institutu Geografiko Nazionalak argitaratutako egunsenti eta iluntze almanaka ofiziala hartuta (<http://www.fomento.gob.es/salidapuestasol/2018/Vitoria-2018.txt> eta <http://www.fomento.gob.es/salidapuestasol/2019/Vitoria-2019.txt>).

Hala ere, Arabako parke naturaletako erabilera publikoak bateratze aldera, parke horietako ehiza lurretan zelatan ehizatzeko ordutegia egunsentitik 11:00etara arte eta 18:00etatik iluntzera arte izango da udaberriko zelataldian; eta egunsentitik 11:00etara arte eta 17:00etatik iluntzera arte, udazkeneko eta neguko zelataldian.

Baimendutako aldien eta egutegi honen arabera, arren udaberriko zelataldien hasiera eguna apirilaren 1a, igandea, izango da.